

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera atera dadin ezinbestekoa iruditzen zaigu enpresa batzuekin harremanetan jartzea. Hasiberriak garenez, eta proiektua sortu egin behar dugunez dena gure kabuz egitea lan erraza izango ez dela uste dugu. Hori dela eta beste elkarte batzuekin kontaktuan jartzea lagungarria egingo zaigu.



Lehenik eta behin, gure proiektua aurrera ateratzeko garrantzitsua da lokal bat edukitzea. Lokalaren erabilerari dagokionez, guk gure produktuak eta txirriak gordetzeko erabiliko dugu. Horregatik, UGGASArekin jarriko gara kontaktuan (*UGGASAk Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A. esan nahi du*). Agentzia honek guretzat ezinbestekoak diren baldintza guztiak betetzen ditu: argindarra, gasa, ura eta interneta baititu. Guzti honen truke hilabetean 30€ kobratuko dizkigute, gazte ekintzaileak baikara. Lehen bi urteetan, agentzia honek, gazte ekintzaileei baliabide hauek emateagatik 30€ bakarrik kobratzen dizkie. Guk aliantza hau sortzea erabaki dugu gure proiektuarentzak oso lagungarria delako prezio honetan honelako lokal bat eskuratzea, izan ere, diru asko aurreztuko dugu zerbitzuak merkeengatik.

Honez gain, Zatika Bikekin jarriko gara harremanetan, materiala lortzeko ezinbestekoa baita. Denda hau aukeratu dugu herrikoa delako eta horrela beste era batean herriko komertzioei laguntzen diegulako. Hasiera batean, 4 txirri hartzea erabaki dugu, beraz, Txirri bat baino gehiago erosteagatik espero dugu beherapenen bat egitea, izan ere txirringu berriak oso garestiak dira gaur egun.

Webgunearen sorketari dagokionez. Gure herriko gazte aditu batekin jarriko gara harremanetan. Bere ikasketak direla eta, webgune erabilgarri eta seguru bat sortzeko gai da, izan ere, informatika arloan zenbait ikasketa eginak ditu. Adiskideak bere lana amaitu ondoren, bere zerbitzuak direla eta guk ordainean diru kopuru bat emango diogu.

Banaketatuz arduratuko diren langileak direla eta, eusko jaurlaritzarekin jarriko gara harremanetan. Jakinaren gainean gaude adingabeen espetxean espetxeratuta dauden gazteak, 3. gradura iristean, lan ordu batzuekin bete behar dutela. Hori dela eta, guk, beraien egoeraz baliatuta, aukera paregabe bat ematera aurkeztuko gera. Beraz, Zumarragan adingabeen zentru bat dagoenez, bertatik-bertara lan duin batean lanean aritzeko aukera aurkeztuko diegu.

